

## 5. Kanalak

Canvas ereduko bostgarren zati honetan gure enpresa gainontzekoek ezagutzeko erabiliko ditugun estrategiak azalduko ditugu. Gure bezeroak nola lortuko ditugun adieraziko dugu.

Gure enpresa gainontzekoek ezagutzeko eta arreta pizteko argi izan behar dugu ze mezu adierazi nahi dugun eta ze motatako zerbitzua eskainiko dugun.

Gure enpresa ezaguna izateko hainbat estrategia erabiliko ditugu, lehenik eta behin gure enpresak proiektu propio bat izango du, bertan gure enpresako aurkezpena adieraziko da eta baita egingo ditugun ekintza desberdinak.

Proiektu hori Osakidetzan aurkeztuko dugu eta beharrezkoak diren tramiteak sinatuko ditugu gure enpresa martxan jartzeko. Osakidetzakoei gure proiektua aurkezteaz gain, erabaki dugu hizketaldi desberdinak antolatzea, ospitale desberdinetan bertan dauden umeen familiekin.

Webgune bat ere egingo dugu, "aho-irri" (<http://aho-irri-blogspot.es>) deiturikoa. Bertan gure burua aurkeztuz eta informazio gehigarria partekatuz. Ere jarriko dugu, gure ideia edo gure enpresaren interesak eta helburuak zeintzuk izango diren. Non, zertarako, norentzat... izango den gure zerbitzua. Bertan, gure telefono zenbakia eskuragarri eduki dute, zalantzaren bat izanez gero edota informazio gehiago nahi izanez gero, gu argitu ahal izateko.

Bertako atal batean, gune bat egongo da non bertan, kritika eraikitzaileak, hobetu beharreko gauzak eta aholkuak jarri ahalko dituzte. Iruzkin horiek, denak ikusgai edukiko dituzte, hau da, gainontzekoen iritzia ezagutu ahalko dute.

Publizitatea, gure enpresa aurrera eramateko eta ezagunak egiteko erabiliko dugu. Ospitaletako tabloian, gure publizitatea egiteko kartelak eskegiko ditugu, kartelak bertan QR kode bat jarriko dugu, eskaneatzeko eta jarraian gure web orrira eramateko.

Beste elkarteekin komunikatzeko kanal zuzena erabiliko dugu, hain zuzen, e-mail baten bidez kontaktuan jartzeko. [aho-irri@gmail.com](mailto:aho-irri@gmail.com)